


# GETXOKO ONDAREA ETA TOPONIMIA



**Unitate didaktikoak**  
LEHEN HEZKUNTZA

**HERRIA**



**EGILEA** Itziar de la Encina-Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** Getxoko Udala-Euskara Zerbitzua

**ILUSTRAZIOAK:** Kepa de Orbe

**ARGAZKIAK:** Ana Gonzalez Herrero- Artefacto estudio

**San Nikolas liburutegia**





# GETXO

Izena egungo Andra Mari auzoan sortu zen eta denborarekin inguru guztia hartu zuen.

XIV eta XV. mendeetako gerretan askotan agertzen zaizkigu Getxo leinukoak oinaztarren taldean, martiartutarrekin batera borrokan ganboatarren kontra. Getxo leinuaren izena eta herriarena nahastu egin ziren, bat egin arte.

Getxo izeneko dorretxea ere bazegoen, *Jauregi* baserriaren ondoan omen zegoen.

## Getxoko armarria

Herri eta hiri guztiek bezala, Getxok ere bere armarria du. Armarrietan herrien ezaugarriak irudikatzen dira. Ikusi Getxokoa:



Zer agertzen da irudian?


Otso bat zelaia zeharkatzen, zuhaitza (haritza) erdian eta bertatik bi galdara beltz urrezko kateetatik zintzilik.

Armarriaren inguruan zer dago idatzita?

*Kaltea dagianak bizarra lepoan.* Txarto ibiliz gero edo okerren bat eginez gero, urduri eta atzera begira biziko zarela esan nahi du.

Armarria eta bertan agertzen den leloa Martiartu leinuarenak dira. Martiartu familiaren dorrea Erandion dago.

Getxoko armarririk zaharrena ikusi nahi baduzu Andra Maria elizaren mendebaldeko sarreran daukazu, atearen goiko partean.





## Herria eta bere auzoak




Getxon 81.500 pertsona (2011. urtean) bizi dira 11,64 km<sup>2</sup>-tan. Inguruko herriak hauek dira: Sopela, Berango, Erandio eta Leioa.

Gaur egun Udalak 3 auzo ofizial ditu: Andra Mari, Algorta eta Areta/Las Arenas, eta beste bi ofizialak izan ez arren, oso ezagunak: Neguri eta Romo.

## Euskara


Getxon pertsona asko euskaraz berba egiteko gai dira eta erabiltzen dutenak ere gero eta gehiago dira. Baina euskara gehien egiten dutenak umeak dira:



Getxoztar askok euskara ulertzen dute, beraz... gogoratu: lehenengo hitza euskaraz: egun on, arratsalde on, kaixo...

### **ARIKETAK:**

1. Zergatik da garrantzitsua herri bateko armarrria? Zer adierazten du?
2. Zeintzuk dira Getxoko armarrrian agertzen diren irudiak?
3. Eta leloak, zer esan nahi du?
4. Non dago Getxoko lehen armarrria?
5. Zenbat biztanle dago Getxon?
6. Zein da bere azalera?
7. Mapa bete. Adierazi zeintzuk diren Getxo inguruan dauden beste herriak eta kokatu Getxoko auzoak.



8. Zer auzotan bizi zara zu?
9. Zure gurasoekin euskaraz hitz egiten duzu? Eta lagunekin?